



Emile
Larre

1926

BIDeGILEAK

Egilea:

Eneko Bidegain

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Emile Larreri, gurekin pasatu duen denbora guztiarengatik eta utzi dizkigun argazkiengatik

Zuzendaritza: Jerardo Elortza
Argitaraldia: 1.a, 2010eko abendua
Ale-kopurua: 2.300
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria: Edorta Sanz
Fotokonposizioa: EPS, S.L., Vitoria-Gasteiz • www.eps-grupo.com
Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A., Vitoria-Gasteiz • www.graficassantamaria.com
ISBN: 978-84-457-3103-1 (Lan osoarena)
978-84-457-3106-2
L.G.: VI - 541-2010



EMILE LARRE

(1926)

Laboraria

apez

LABORARI ALA APEZ?

Emile Larre Baigorri (Baxenabarre) sortu zen, baina karrikatik sei kilometrora dagoen auzo batean, Bastida auzoan, hain zuzen, 1926ko urtarrilaren 3an. Gain hartako bazterrak eta bistak zoragarriak dira, eta hango Belarrea baserriko seme zaharrena da Emile Larre. Gurasoek zazpi haur ukan zituzten, orotara, baina hiru baizik ez ziren gelditu bizirik.

Sei urte gabe hasi zen eskolan. Baina ordura arteko epea ere nahiko eskola izan zitzaion, laborantzako lanetan ibili baitzen haurtza-

rotik. Txiki-txikitatik ikusi ditu etxean behiak, ardiak eta abar. Garai hartako etxaldeetan, gainera, belaunaldi guztiak izaten ziren etxean, haurrak, gurasoak, zaharrak, etxeko ezkongabeak... Adin guztikoen arteko harreman horiek Emile Larre anitz aberastu zuten.

Eskolan sartu arte, ez zekien frantses hitzik. Etxean beti euskaraz mintzo ziren, eta amak gure hizkera ongi irakatsi zien. Hots, zerbait euskaraz gaizki erraten bazuten, amak berehala zuzentzen zien. Euskarazko gutunak idazten ere amarekin ikasi zuen. Horrez gain, Urdozko es-



Belarrea, Emile Larrereren sortetxea

kolako irakasleak ez zien etxeko mintzaira erabiltzea debekatzen, zorionez. Beste eskola anitzetan, ordea, Larrereren adineko beste haur anitz zigortzen zituzten, euska-

raz egiteagatik. Haatik, katixima euskara hutsean zen orduan, Baigorriin, bertako hizkuntza ez zekiten bakar batzuentzat salbu.

Hamaika urte zituela joan zen Uztaritzeko apez eskolara. Aitak 1914-1918ko gudateko gerlari ohi gisa irabazten zuen pentsioari esker kolegioan ikasi ahal izan zuen. Ordurako jadanik bazuen apezgintzarako joera. Eskolara joaten zenean, sei urte zituela, han inguruko emazte xahar batek erraten zion apeztu beharko zuela, amatxiri plazer



Emile Larrereren gurasoak

eginen ziola... Hortik hasi zitzaion, behar-bada, apez egiteko gogo bere baitan hazten. Handik laster, Urdoz auzoko elizan beretter, meza-laguntzaile gisa hasi zen, erretoreak auzo horretako elizara igortzen zuen bikario gaztea laguntzen.

Apaizteko gogo bizi horrek buru-haustek ere sorrarazi zizkion. Laborantza maite zuen, zinez. Udako oporretan, Uztaritzetik etxera itzultzen zenean, uztailearen lean, belarrak egiteko garaia izaten zen, eta trebezia handiz aritzen zen belar mozten. Laborantzarako dohaina zuen. Eta etxeko seme zaharrena izanik, uste zuen hari zegokiola etxaldearen segida hartzea. Beraz, aski pena bazuen ez zelako apezteko edo apez egiten bazen, etxaldea utzi beharko zuelako.


Ororen buru, kezkak gainditu eta apez egitea erabaki zuen. Dena den, laborari seme izatea baliagarri izan zitzaion, nekazariak hobeki ulertzeko. «Eskolak eta ideia handiak ez dira aski. Lurrarekin lokarri bat behar dugu», dio Emile Larrek. Laborantzako jakitate hori zela medio, Donibane Garaziko laborantza-eskolako sortzaile bihurtu zen, irakasle



Emile Larreren amatxi, aitatxi eta haurrideak



Bere senideekin



Emile eta bere anaia, Leon osabarekin.
Osaba gerlan hil zen, 1940an

gazte batzuekin, 28 urte zituela. Nahiz eta laborantza maite zuen, ez zuen irakasle izan nahi, apez izan nahi zuen. Baina, bi urte haietan Donapaleun, Maulen eta

Hazparnen gertatu bezala, Donibane Garaziko auzapezak eta erretoreak herri horretan laborantza-eskola bat sortzea erabaki zuten, eta Baionako gotzainak eta eliz barrutiak Donibane Garazira izendatu zuten Emile Larre, ikastetxe hartako irakasle gisa. Hiru urtez bete zuen kargu hori.

APEZ-ESKOLAK

Apez-ikasketak Uztaritzeko eta Baionako seminarioetan egin zituen: 11 urtetik 18 urtera Uztaritzen ikasi zuen. Ordu arteko apezan artean, batzuek ez zekiten euskara tuntik, eta beste anitz errotik euskaldunak ziren; baina beti frantsesez mintzatzen



Emile Larre bere familiarekin



Urdoz auzoko kapera

zirela, De Gaulleren aldekoak eta eskui-nekoak zirela gogoan du Larrek. Eskola guztiak frantsesez ziren, eta horregatik, Uztaritzeko eta Baionako seminarioek nehoiz ez zuten ukan euskaraz izateko posibilitaterik. Baina orduko ikasleen artean, 1940tik goiti bereziki, baziren euskal harrotasun zerbait aldarrikatzen zuten batzuk, 16 urte zituztela. Emile Larrerekin batera ziren Piarres Xarriton, Sarako Fagoaga anaiak, Larrondo, Aldudeko Bidegain eta abar. Pilotan aritzen ziren, anitz. Belaunaldi horretako apezek elkarren artean euskaraz mintzatzeko ohitura indartu zuten, lehenagokoek ez bezala. Geroztik, beti euskaraz mintzo dira.

Uztaritzetik landa Baionara joan ziren. Han ez zuten euskarazko klaserik, baina hala ere euskarari lekua ematen zioten, beren aldetik. Alabaina, bazekiten noiz-



Emile Larre eta bere bi anaiak, osaba, izeba eta haien senar-emazteekin

bait eskolak bukatu eta apez bihurtuko zirela, eta orduan herritarrekin mintzatu beharko zutela. Eta nola mintzatu ziren herritarrekin? Ez zuten dudarik euskaraz aritu beharko zutela. Beraz, beren aldetik segitu zuten euskara lantzen. Kaier bat bazuten, ikasleen artean elkarri pasatzen ziotena, eta bakoitzak artikulu bat idazten zuten euskaraz kaier hartan.

Astelehen eta ostegun arratsaldeetan ez zuten klaserik izaten, eta multzoan joaten ziren inguruko herrietara, ibilaldien egitera. Emile Larrereren taldekoak maiz pilotan aritzen ziren; baina herri haietako apezek ezagutza ere egin zuten. Mugerrera joaten ziren batzuetan. Hura zen euskarazko bezperak sortu zituen lehen herria. Aldu-



Uztaritzeko seminarioko ikasle ohiak, 60 urte geroago elkartu zirenean

deko Urrukariet zen apeza, eta Ernest Bidegain aldudarra bikarioa.

Arrangoitzera ere joan izan ziren, eta hango apeza Jules Moulier *Oxobi* idazlea zen. Oxobi kontent izaten zen gazteen bisitarekin,

gustatzen baitzitzaion gazteekin mintzatzea. Gainera badauka zeharkako lotura Emile Larrerekin. Alabaina, Larreren auzo bereko guarda zen Jules Moulier-en aita, Baigorriko Bastida auzora etortzen zena. Jules Moulier auzo hartako Otsobia etxaldekoen lagun egin zen, eta hartarik hartu zuen idazle-izenordea. Eta Otsobia etxaldea da Erramun Martikorena kantariaren sortetxe eta bizilekua.

Oxobiren ezagutzak euskararenganako maitasuna areagotzen lagundu zion. Baionako seminarioan euskarari errotik atxikiak zirenak Xarriton, Iratzeder, Bidegain, Hiriart-



Emile Larre eta Aita Gatzitegi 1945ean sortu zirenekin

-Urruti eta Larre ziren. Larrereren arabera, haiek zuten lehen hatsa eman, Piarres Lafitte bertako irakaslea zelarik horien guztien aitzindari; eta hartarik sortu zen abertzaletasuna Ipar Euskal Herrian.

MAULEKO EGONALDIA

Baina Baionako seminarioan sartu aitzin, ikasturte bat iragan behar izan zuen irakasle gisa, Maulen. 1944a zen, bigarren mundu-gerla eta alemanen okupazioa bukatzen ari zen, baina oraino soldadu anitz bazen preso Alemanian. Irakasleak eta apezak falta ziren. Beraz, apezgaiengana jo zuten, irakasle bila. Gainera, inoiz baino apezgai gehiago bazen urte hartan: 150 bat. Emile Larrek 18 urte zituen, eta 30 bat ziren bost urte lehenagotik seminarioan ikasketak bururaturik, han 1951n apez eginen zirenak.

Ikasturteko lehen egunaren bezperan, maletak egiten ari zelarik ekarri zuen gutuna postariak. Seminarioko arduradunarena zen. Irakasleak falta zirela azaldu zion. «Egia da ikasturte bat galduko duzula, baina heldutasunean irabaziko duzu», idatzi zion. «Banukeen horren beharra!», dio Larrek. Mauleko



Emile Larrereren apaizte eguna, eskuinean aita eta ezkerrean anaiak dituela

kolegiora igorri zuten, historia-geografia eta aritmetika irakastera.

Biziki urte aberatsa izan zen Larrerentzat. Irakaskuntzako esperientziaz gain, bereziki Zuberoa gainbehera ezagutzeko parada izan zen. Osteguna izaten zuen egun librea, eta ez zenean pilotan ari, herriz herri joaten zen, hango bazterren ezagutzera. Horrekin batean, zuberera ikasteko aukera izan zuen, eta geroago *Herria* astekariko zuzendari izanen zenean, anitz baliatuko zitzaion zuberera hobeki ulertzea, Zuberoako berri-emaileen artikuluak argitaratzeko.



Larre gazteekin

Maulen memento hunkigarriak ere bizi izan zituen, gerla bukaera baitzen. Kolegio-
ra heldu zenean, bonbardaketa arrastoak nabari ziren, Maule ere bonbardatua izan baitzen. Serora etxe baten ondo-ondoko kolegio bat ere ikusi zuen bonbek utzitako zuloekin. Une gogorrak ziren. Alemanek okupatzen zuten eremuaren muga ere han gaindi zen. Gune «askearen» eta «okupatuaren» artean bizi izan zen Emile Larre, Zuberoako eta Baxenabarreko beste hainbat lagun bezala.

Alemanian preso ziren herritarrak pixkanaka-pixkanaka askatzen hasi ziren eta Zuberoara itzultzen. Eta horietatik bat zen Piarres Bordazaharre, *Etxahun Iruri* koblakaria. Etxahunen «Agur Xiberoa» kantua ospetsua ordukoa da. Larrek kantua

hura eta beste batzuk ere ikasi zituen, eta baita Etxahun Barkoxeren bertsoak ere.

EUSKALDUN GAZTERIA

Baionako teologiako azken hiru urteen aurretik, soldadutzara joan zen, Frantziako Tolosara. Erizain laguntzaile gisa hartu zuten. Hastapenean, soldadutzatik libratu zen, ama eri zelako hartaz arduratu behar baitzuen. Baigorriko medikuak agiri bat idatzi zuen, erranez Emile Larrek eritasun kroniko bat zuela. Baina noizbait gutun bat heldu zitzaion, eritasun kronikoa baldin bazuen, Baionako ospitalera joan behar izan zela. Emile Larrek bazekien, ospitalera joanez gero, ohartuko zirela eritasunarena gezurra zela. Beraz soldadu joan zen.

Soldaduskara joan eta aste baten buruan ukan zuen amaren herioaren berria zekarren deia. Armadara joan artean ama artatu zuenaz geroz eta pikurak egiten zizkionaz geroz, erizain-laguntzaile gisa hartu zuten, erizaindegi bateko ikastaldi labur baten ondotik.

Apez egin eta gero, bikario gisa joan zen Hazparnera. Han, bere lehenbiziko predikua eman zuen, Omiasaindu (Domu Santu) egunez, 1951n. Hogeita bost urte zituen, eta kezkaz beterik iragan zituen lehen egunak. Teologia ikasia zuen. Baina bere baitarik ikasi behar izan zuen publikoa zer den, nola egin ez herabe agertzeko, bere buruaren jabe egoteko, bere sentimenduen kudeatzeko eta abar.

Bikario zela, lehenik Hazparnen, gero Urruñan, beste bikario eta apez gazteekin elkar-tzen zen, elkar laguntzeko. Euskaldun Gazteria mugimenduko kide ziren. Laborari munduari lotua zen gazte kristauen mugimendua da. Hilabete guzietz bilerak egiten zituzten, Ipar Euskal Herriko erdialdean, Kanbon edota Hazparnen. Euskaldun Gazteria Frantziako *Jeunesse Agricole Chretienne* (Laborantzako Gazteria Girstinoa) mu-

gimenduaren barne zen. Ehunka edo milaka gazte biltzen zituen mugimendua zen.

Euskaldun Gazteriako dozena bat arduradunek hilabetean behin egiten zuten bileretan, *Gazte* izeneko aldizkari bat ere idazten zuten; hilabete guzietz gai baten inguruan biltzen ziren. Zortzi urtez argitaratu zuten aldizkari hori. Emile Larrek idazten zuen editoriala. Euskaltzaleak ziren Euskaldun Gazterian eta *Gazte* aldizkariaren inguruan biltzen zirenak, besteak beste Piarres Xarriton, Jean Etxepare, Jean-Louis Davant eta abar. Emile Larrek *Sokorri* izenordearekin izenpetzen zuen. Aldizkari gehiena euskaraz idazten zuten, eta euskal idazle anitz hor hasi ziren.



Belokeko bilerak



Herriako zuzendari

Meza ematen

ESKUALDUNA SALTZEN

Herria astekaria 1944 bukaeran sortu zen, *Eskualduna* astekaria legez kanpo gelditu eta zenbait hilabeteren buruan. *Eskualduna* zen 1887az geroztik euskarazko astekaria Ipar Euskal Herrian. Emile Larre oraino erdi haurra zela, Urdozeko eliza aitzinean aritzen zen *Eskualduna* aleak saltzen, meza-tik landa. Hori izan zen euskarazko astekariarekin ukan zuen lehen harremana. Hala-ber, *Eskualdunak* almanaka ere argitaratzen zuen, eta bere auzoan etxez etxe ibiltzen zen urtekari hori saltzen.

Elizatik etxera oinez, oren erdi bateko bidea zuen egiteko. Eta bera baino za-

harxeagoak astekarian irakurri berrien komentatzen aritzen ziren, bidean zehar. Igandeetan, Urdozeko meza-tik etxerakoan, pilotako berriak ziren bereziki komentatzen zituztenak.

Emile Larre bera pilotazale amorratua zen, eta pilotari trebea ere bai. Baionako apez-eskolan zenean ere pilota-partida eta lehiaketa anitzetan jokatu izan zuen. Ostegun arratsaldetan zuten seminarioko ateraldia Baiona inguruan. Zazpi laguneko multzoka joaten ziren. Roger Etxegarai, orain kardinal ezaguna duguna, zen Emile Larreren taldeko buru. Oinez joaten ziren, eta hamar kilometrorainoko bidea egiten zuten, eta 17:00etarako itzuli

behar. Batzuek kazeta bat biltzen zuten, munduko zenbait berri jakiteko, kirolekoak bereziki. Pilotan ere aritzen ziren.

Geroago, handitu zenean, Baigorriin pilota-partidak edo lehiaketak izaten zirelarik, artikulua idazten zuen Emile Larrek, eta *Herria* astekariko zuzendari Piarres Lafitteri igortzen zion. Beste gai batzuek ere izkiriartzen zuen, noizbehinka, euskal kazeta horretarako.

Geroago, bikario izan zenean, herrietako albisteak igortzen zituen. Baina beti nahiago izan zuen herri haietako berri-emaile bat aurkitu, berak idatzi baino. Ez batere idazteko gogorik ez zuelako, baizik eta ahal bezain laguntzaile-sare zabala sortzeko, eta horrela *Herria* astekaria azkartzeko.

PIARRES LAFITTEREN EZAGUTZA

Uztaritzeko seminarioan Piarres Lafitte ukan zuen irakasle. Gaitzeko garrantzia izan zuen Lafittek, Emile Larreren etorkizuna finkatzerakoan. Gazte-gaztetan, Larrek 15 urte zituela, Lafittek euskarazko



Emile Larre pilotariekin



Piarres Laffitte Emile Larreri saria ematen, Villasante atzean dagoela

testu bat idatzarazi zien ikasleei. Emile ez zen ikasle onenetakoa, eta guztiz harritu zen lan hartan nota hobereana lortu zuelako. Orduan ulertu zuen euskara mailan balio zuela, txikitatik ongi ikasi zuelako, eta ez zela bakarrik frantsesaren maila merezi zuena. Gainera, amak beti zuzen-



Herria astekariaren bulegoan

tzen zion, euskaraz huts bat egiten zuelarik. Oharkabean eta naturalki lortu zuen euskara maila aberatsa.

Baigorriko katiximan ere idatzi izan zituen euskarazko idazlan batzuk, hango bikarioak galdeginik, Euskaltzaleen Biltzarrarentzat. Orduan ez zuen lehen saria eskuratu, baizik eta bigarrena. Lehen saria Marguerite Olzomendik erdietsi zuen. Bigarren saria ere ez zen txarra, baina gure mutikoa, poztu bazen ere, ez zen urrunago joan. Lafittek eginarazi testuarekin piztu zitzaion zerbait.

«Mamu bat» bezala ikusten zuen Lafitte. Ez gaiztoa zelako-edo, baizik eta ez zelako

apaintzen zekiena. Kanpotik zuen itxurak ez zuen adierazten barnez zein gizon atsegina zen. Denborarekin, hobeki ezagutu zuen Lafitte. Eta urte-andana batez, astero-astero Uztaritzetik Baionara eramaten zuen, autoz, *Herria* astekariko erredakzio-ra. Lafittek, euskal gramatikaz liburu bat idatzi bazuen ere, bere garaiko apezek bezala eta garai hartako euskaltzale askok bezala, frantsesez mintzatzeko ohitura zuen. Luhuson sortutako apeza Baigorri jaiotakoarekin hasi zen euskaraz mintzatzeko, biak elkarrekin zoazelarik.


Noizbait, Larrek 35 bat urte zituenean, Lafittek proposatu zion ea ez zuen *Herria* astekariaren segida hartu nahi. Lafittek bi urte lehenago Jean Hiriart-Urrutiren eskutan utzi zuen astekariko zuzendaritza. Hiriart-Urruti Baionako seminario handiko irakaslea zen, baina euskaltzalea izanik, ez zituen denak beti alde. Bi irakasle baztertuak izan ziren, Housset eta Hiriart-Urruti. Garai hartan sortu zen Fidei Donum mugimendua, mugarik gabeko apezena. Apez-andana bat boluntario gisa aldegi- na izan zen Afrikara eta Hego Amerikara, sei urterako. Hiriart-Urruti ere joan zen

Afrikara, 1968an. Baina *Herria* zuzendaririk gabe gelditu zen, eta horregatik eskatu zion Lafittek Larrerri lanbide berri hari ekiteko.

Baigorriarrak ez zuen berehala erran baietz. Baldintza bat ezarri zuen, baina luhusoarrak ez zuen onartu. Orduan, Larrerren ezezkoaren aitzinean, horrela mintzatu zitzaion: «Segituko dugu, beraz, ahal duguino». Hori entzun eta, hunkiturik, biharamunean berean gutuna idatzizion Larrek, *Herriako* zuzendari kargua hartuko zuela errateko.

Nahiz eta Lafitte eta Larre apezak izan, *Herria* ez da sekula Elizaren astekaria izan. Hori argi utzi nahi du Emilek. Baionako apezpikuari ez zioten inor kanporatzeko edo erabaki baten hartzeko eskubiderik aitortzen. *Herriak* independentziari eutsi nahi izan dio beti.

Eskuineko apez eta laiko batzuen kritikak ere bazituen *Herriak* berritze denbora hartan, baina hori izan zen kazeta guztien eztabaida. Bigarren mundu-gerlako urteetan kazeta guztiak aleman «okupatzaileen» menean egonak ziren, eta horra non



Herria inprimatzen den moldiztegia, Baionan

gehienek izenez eta izanez aldatu behar izan zuten 1944an. Bi tendentzia agertu ziren astekari euskaldun berri baten egiteko: tendentzia zaharreko «xuriak» batetik, eta Lafitteren berritzaileak bestetik. Milafrangan bildu ziren hauek, hango erretore Etxeberriren etxean. Hauen burua, Piarres Lafitte, erne baitzegoen, hau nagusitu zen, eta, Bordelera joanik, aitzindu zen kazetako paperaren erdiesteko eta *Herria* sortzeko.

HERRIA ALDIZKARIA BERRITZEN

Emile Larrek *Herriaren* zuzendaritza-kargua hartu zuenean, aldatu nahi izan zuen lehena frantsesak zuen lekua izan zen. Nahiz eta euskarazko astekaria izan, artikululu franko bazen frantsesez, eta, bereziki,



Jamattitt Dirassar eta Emile Larre, *Herria* egiten den inprimategian

publizitate guztia. Etienne Salaberri zen astero frantsesezko kronika idazten zuena, baina Salaberriren ekarpena biziki estimatua zen, eta gainera, irakurleen artean erdaldun batzuk bazirela-eta, hautsi-mautsi hori egina zuten. Baziren *Herria* astekaria Salaberriren artikuluairengatik baizik erosten ez zutenak.

Salaberri hil zenean, frantsesezko artikulua baten argitaratzen segitu zuten. Jean Toulat kazetari erdaldunari eman zitzaion frantsesezko artikulua egiteko ardura Salaberriren orde; gai sozialak eta nazioartekoak aipatzen zituen. Jean Toulat Fran-

tziako kazetari katolikoek zuten elkarteko editorial-idazlea zen. Elkarte horretako beste kazetek ere Toulaten editorialak hartzen zituzten, eta *Herriak* berdin egin zuten epe batean, frantses legeak artikulua bat behintzat frantsesez nahi zuelako euskaldun aldizkarietan ere. Azken urteetan, dena euskaraz egiten dute *Herrian*.

Haatik, publizitatea euskaraz ezartzen hasi zen Emile Larre. Eta nahiz eta jakin diru-iturriak franko urriak zirela eta publizitatea baitezpadakoa zela, apustu hori egin zuten, publizitate batzuei ezezko erantzuna eman behar bazieten ere. Ukan izan zituzten proposamen bereziak, behar izanez gero gehiago ordaintzeko prest zirenenak, baina hala ere ezetz erran zuten, nortasuna ez zutelako galdu nahi.

Hogeita hamahiru urtez egon zen *Herriako* zuzendari, eta editoriala ere hark idazten zuen, astean behin. Azken urteetan Jamattit Dirassar da kazetaren zuzendaria, Peio Jorajuria duelarik bere ondoan idazle-buru, baina Emile Larrek oraino ere jarraitzen du *Herrian* idazten eta bileretan parte hartzen.



Bertsolaritza, Euskaltzaindia eta beste

ANTZERKIA ETA BERTSOAK

Apezgintzan jende anitz ezagutu du Emile Larrek. Hazparneko bikario izendatu zutenean, Piarres Larzabal antzerki idazlearen lekua hartu zuen. Larzabalek aholku anitz eman zion. Geroago berriz elkartu ziren biak, Larre Urruñara joan zenean bikario gisa. Larzabal handik hurbil zen, erretore: Urruña eta Ziburu biltzen dituen Zokoa auzoan. Astelehenetan elkartzen ziren, eta motoa harturik egun pasa joaten ziren, batzuetan Larrun aldera, mendira, elurra baldin bazen ere; beste anitzetan, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko zenbait lekutara. Larzabalekin batera, Hego Euskal Herriko bazter askotara iritsi zen.

Larzabalekin batera, Telesforo Monzon ere ezagutu zuen. Antzerkiaren atea ireki zioten biek. Emilek ez zuen antzerkirik idatzi. Baina Larzabalek edo Monzonek idazten zituzten antzerkien taula-zuzendaritza egiten zuen Urruñako gazteenzat. Urtero ematen zuten antzerki bat, eta Monzonen laguntza preziatua izan zen. Larrek-eta ideiak eman, eta Larzabalek zortzi egunez idazten zuen antzerkia. Urruñaz gain, Heletan eta beste herri frankotan antzeztu zituzten teatro-lanak, baita Donostian ere. Jende-andana biltzen zuten aldi guzietan.

Larzabalen eta Monzonen laguntzarekin, bertsolaritza ere bultzatu zuen. Larrek



Emile Larre gai-jartzaile lanetan. Atzean, Jon Azpillaga, Txomin Ezponda, Mattin, Jean-Pierre Mendiburu, Ernest Alkhat eta Mixel Xalbador bertsolariak

bertsolaritza lehenagotik ezagutzen zuen, Xalbador bertsolariaren bidez bereziki. Xalbador urepeldarra, Larre baigorriarra, eskualde berekoak izanez, elkar ezagutzen zuten aspalditik. Gainera, Xalbadorren arreba Larrereren auzora joan zen bizitzera.

Bertsolaritzarekin zuen harremanaz baliatuz, Monzonekin eta Larzabalekin bertsolarien eguna antolatzen hasi zen Urruñan.

PARISEKO SAIOA

Teodoro Hernandorena ere bildu zitzaion bertso-saioen antolatzen ari zen hirukote horri. Hernandorenak pentsatu zuen jaial-

di bat antolatu behar zutela Parisen, hango euskaldunentzat. Erabaki zuten Euskal Herriko lau bertsolari «hoberenak» igorri behar zituztela: Iparraldeko bi eta Hegoaldeko bi hautatu behar zituzten.

Lau bertsolari horien hautatzeko saio bat antolatu zuten, Urruñan. Puntuazio onena ukanen zutenak joanen ziren Parisera. Urruñako Itsas Mendi zinema gelan 320 leku baizik ez ziren, baina anitzez jende gehiago joan zen saiora, eta beharbada barnean zen baino jende gehiago gelditu zen kanpoan. Saioan dirurik aski bildu zuten Pariseko jaialdia eta bidaiaria pagatzeko. Uztapide, Basarri, Xalbador eta Mattin izan ziren Parisen kantatu zuten bertsolariak.

Beste saio franko ere antolatu zuen Emile Larrek. Aiherrako erretore zelarik, hamabost urtez bertso-ekinaldiak antolatu zituen han. Beste zenbait bestetarako ere, apez lagun batzuek Emile Larrereri eskatzen zioten bertsolariekin harremanetan sartzeari, hark ongi ezagutzen baitzituen. Beti Xalbador eta Mattin eskatzen zizkioten. Larrek bertsolari gehiago ere bazela erran nahi izaten zien, eta hasiberriak ziren

Ernest Alkhat, Jean-Pierre Mendiburu, Mixel Xalbador edota Joanes Arrosagarai ere bultzatu behar zirela uste zuen.

Xalbador eta Mattinekin herri anitzetan ibili zen, txofer gisa. Garai haietan auto guti izaten zen, eta Larre herriz herri aritu zen, Larzabalekin, ahal zuten guztiez.

EPAIMAHAIAN

Bertso-txapelketetako epaimahaian ere ibili zen Emile Larre, hogeitaz baina gehiago. Larre baino lehen Mixel Labeguerie eta Piarres Lafittek jardun zuten epaile moduan Ipar Euskal Herriatik. Larrek eta Mixel Itzainak hartu zuten haien segida. Egia erran, ez zaizkio txapelketak gustatzen. «Injustizia» iruditzen zaizkio, «subjektibitate ikaragarria» dagoelako.

Ez du inoiz ahantzi 1967ko txapelketa, Xalbadorri txistuak jo zizkietenekoa. «Orduan Xalbador ez zuten konprenitu.» Bere andre zenaren soinekoari egin bertsoak antologikoak ziren, Larreren arabera. Mixel Itzaina, Fernando Artola *Bordari* (Hondarribikoa) eta Larre ziren, Xalbadorren bertsoak ongi ulerturik, pu-



Mariano Izeta eta Teodoro Hernandorenarekin batera, omenaldia egin ziotenean. Eli Galdos Gipuzkoako diputatu nagusia saria ematen

blikoaren erreakzioarekin gehien harriturik gelditu zirenak. «Orduan genuen ikusi euskararen batasuna egitearen garrantzia zein handia zen.»

Geroztik ere gaizki-ulertze batzuk izan ziren, besteak beste Ernest Alkhatekin, Nafarroan kantatzen ari zelarik, zerbait ez baitzuen ulertu. Alderantzizkoa ere gertatu izan zen, Hego Euskal Herriko bertsolari batzuk Iparraldera etortzean, «espainol horiek ez ditugu konprenitzen» bezalako oharrak entzun behar izaten ziztuztenean.

Larrerri halako oharrak ez zaizkio inoiz gustatu, eta bertsolariak mugaz gaindi ulertu



Emile Larre Amerikako Estatu Batuetako diasporarekin

behar direla, eta euskaldunek elkar ulertu behar dutelako beharraz kontziente izan da. Horregatik ere zen euskara batuaren alde.

Bertsolaritzaren bultzatzaile gisa, omenaldia egin zioten, Mariano Izetarekin eta Teodoro Hernandorenarekin batean, Donostiako Victoria Eugenia antzokian, 1993an. Geroago era bereko beste bi omenaldi egin zizkieten Elizondon eta Donibane Garazin.

EUSKARA BATUA

Emile Larrek betidanik aski argi ukan du euskara batua beharrezkoa zela, baita 1968 baino lehenagotik ere. Euskara —oroz gainetik Ipar Euskal Herrian— irabazle baidarik ez zitekeela izan argi zuen. Ipar Euskal

Herrian «x» grafia onartu behar izan zuten, ordu arte «ch» idazten baitzuten. Hego Euskal Herrian «h» onartu behar izan zuten.

Ipar Euskal Herriko euskaldunek gaizki hartu zuten, hastapenean, euskara batua, «euskara espainoldu hori». *Herria* astekariko harpidetza utzi zuten batzuek, euskara batuarengatik. Baina Emile Larrek tinko jarraitu zuen euskara batuaren alde, eta orain kontent da, inork ez duelako gehiago horrelako kexarik egiten.

Dena den, aitortzen du *Herria* urrun dagoela oraino euskara batua erabiltzetik, «baina beti, eta aspalditik, horretarako bidean da, kostarik kostara, irakurle batzuek nahi ala ez, pixkanaka-pixkanaka, Iparraldeko irakurleak segitzen ahal duen urratsean».

EUSKALTZAINDIAN

1974an egin zuten euskaltzain oso. *Herria* astekariko zuzendari zen hamar-hamabi urte haietan. Baina ez zen hori euskaltzain izendatzeko arrazoi bakarra. Elizan euskara sartzan egindako lanagatik ere eman zioten kargu hori. 1964an Elizak mugimendua sortu zuten, hainbat apezten

eta laikoren artean, meza euskaraz emateko. Ordu arte, latinez ematen zuten. Urte hartan elizan mugimendu berezi bat bazen, baizik eta kristauek bazutela meza beren hizkuntzan entzuteko eta otoitzak beren mintzairan egiteko eskubidea. Aukera horretaz baliatuz, hainbat apezek euskarazko meza prestatu zuten. Hamaitz urtez, astelehen arratsalde guzietan ziren, lau orenez jarraian, euskarazko meza prestatzeko. «Erreboluzio bat izan zen elizan.»

Herritarrengandik ahal bezain hurbil izan zen meza bat prestatu nahi zuten. Ez zuten euskara jakintsuegi bat erabili nahi, gero inork ez bazuen ulertuko. Ez zuten batuegi egin, eta Herrialde bakoitzak bere gisan egokitzeko moduan egin zuten. Adibidez, gipuzkoarrek gipuzkera gehiago sartu zuten, eta baztandarrek Iparraldekoa baliatu zuten. Hala jokatu zen Ebanjelioko eta Bibliako irakurgaietan, baina Eukaristia-testua eta Gure Aita bezalako otoitz berezienak euskara berdinduan.

Hortik landa, itzulpen horren ezagupen ofizial baten bila joan ziren Erromara. Eta ofizialtasuna onartu zieten.



Euskaltzain osoak Nafarroa Oinez-eko ekitaldi batean, 2000n

Emile Larre Euskaltzaindiko herri-literatura batzordeko kide da. Bertsolaritza eta antzerkia aztertzen ditu, bereziki.

EUSKARAREN EGUNA ETA AIHERRA

Euskaltzale sutsua da Emile Larre, eta bere eguneroko bizian eta lanean beti egin du euskararen sustatzearen aldeko indarra. Besteak beste Aiherran (Baxenabarre),



Euskaltzainak bilera batean



Emile Larre Amerikako Estatu Batuetako euskaldunekin

hango erretore izan zen garaian. Aiherrako Uhagunea eiherrako jabe Felix Noblia medikua, Afrikara joan zena, urtero itzultzen zen Euskal Herrira udan, oporretan. Louis Dassance Uztaritzeko auzapezarekin batean, euskararen eguna antolatzen hasi zen, eta urte guzietan ospatzen zuten jai hori. Egun haren helburua zen herri guztietan euskararen aldeko mintzaldiak egitea, bai apezek, bai auzapezek. Halaber, eske bat ere egiten zuten, euskararen aldeko talde edo mugimenduei banatzeko.

Emile Larrek ere bere gisan parte hartzen zuen euskararen egun hartan; eta euskararen aldeko mintzaldia egiten zuen meza denboran. Giro horretan egon zen Aiherran, erretore. Garai hartan anitz mugitu ziren pilotaren alde, antzerkiaren alde eta abar. Euskal giro bat piztu zen. Emile Larrek urtero bertsolariak ekarrarazten zituen Pazko kari, meza denboran eta mezatik landa.

Lan anitz egin zuen Aiherrako gazteekin. Kantua maite duenez, abesbatza sortu zuen,

lehenik herriko neskekin, eta gero mutil eta neskekin. Orotara, Aiherrako 60 bat gazte elkartu zituen abesbatzan. Aiherrako herriko bestek Emile Larrereren garaian hartu zuten fama handia. Ordu arte, besta ttipiak antolatzen zituzten, Hazparneko bestek gazteria guztia erakartzen zutelako. Egun batez, Larrek Bidarraiko jaietara eramane zituen. Hango bestek fama handia zuten, ospakizun ederrak antolatzen zituztelako han. Aiherra ez zela Bidarra baino herri ttipiagoa erranzien Larrek. Eta horrela, Aiherran ere hasi ziren programa hobea antolatzen. Bizpahiru urteren buruan, jendea Hazparnetik hasi zen Aiherrako jaietara joaten; eta ez alderantziz, ordu arte bezala.

Han iragan zituen 11 urte haien omenez, liburu bat idatzi zion Aiherrari, «herriari opari bat» egin nahi baitzion, handik joan baino lehen. Herritar guztiak, zaharrak eta haurrak, denak euskaraz mintzo ziren, eta horrek anitz pozten zuen Larre. Horregatik, Aiherrak euskaraz idatzi liburu bat merezi zuela pentsatu zuen, eta horrela prestatu zuen 1980an *Aiherra Nafarroan leihoa* izenekoa. Liburu harekin erakutsi nahi izan zuen Aiherra Nafarroan zela, eta



Emile Larre gurutzera eramaten, Jerusalemen

ez Lapurdin, anitzek uste duten bezala, Hazparnetik hurbil delako.

IDAZLE ETA BILTZAILE

Ez da idazle gisa ezagun egin Emile Larre, nahiz eta anitz idatzi duen —artikulu franko bereziki— eta liburu askotan parte hartu duen. Bere autobiografia idatzi zuen, hala nola *Ene Artzain etxola* liburu. Ez dio bestelako garrantzirik eman nahi lan horri. Bere 75 urteen kari eta apezta zela 50 urte bete zirela ospatzeko, omenaldi bat egin zioten; 150 bat lagun bildu ziren,



Emile Larreren familia

eta haiei liburu bana eman zien, oroigarri bezala, eta gaineratekoak saldu dira.

Baina argitaratu diren beste liburu franko Emile Larreren lanari esker agertu dira. Larrek bilduak ditu Joanes Arrosagaraiaren bertsoak, Jean-Pierre Mendibururenak edota Manuel Sein *Xanpunenak*. Bertso horiek denak *Herria* astekarian argitaratu ziren. Gauza bera egin zuen Ernest Alkha-

ten bertso-paperekin. Bertso horiek guztiak Emile Larreri ematen zizkioten. Astez aste argitaraturik ere, Larrek inoiz ez zituen galdu, eta noizbait liburuen inprimatzeko balio izan zuten. Ez dira denak *Herrian* argitaratuak; beste bide batzuetatik ere bertso anitz bildu ditu.

Halaber beste liburu-andana batzuk ere osatu ditu. Manex Hiriart-Urrutiren ar-

tikuluak batu zituen sei liburuko bilduma batean. Gorago aipatu bezala, bi urtez egon zen *Herria* astekariko zuzendari, Hiriart-Urruti, baina Afrika aldera joan zen, Fidei Donum mugimenduaren baitan. Larrek *Herriako* zuzendaritza hartu zuenez gero, ez zen sekula joan Afrika-
ra edo Hego Amerikara boluntario gisa. Hiriart-Urrutik utzi lekua betetzearen ordainez, astero-astero artikulu bat igor zezan galdegin zion. «Eliza berri» saila izan zen, eta Hiriart-Urrutik Afrikako berriak igortzen zituen. Gerla gaitzak ikusi izan zituen Afrikan, besteak beste Burundin. Artikulu haiek guztiak dira Emile Larrek sei liburutan bildu zituenak.

Baina liburu-bilduma handiagoa osatu zuen Donostiriko Jean-Baptiste Etxeberriren idazkiekin. Orotara hamahiru liburu argitaratu zituen. Etxeberrri Urruñan ezagutu zuen, bikario moduan hara joan zelarik, oraino gazte zela. Orduan, Etxeberrri zen Urruñako erretorea. Garai hartako beste anitz bezala, «bere garaiko apeza zen, elizan kartsu bezain politikan xuria, baina umore alai eta bihotz handikoa». Pilota, ohiturak, bertsolariak eta Euskal Herria maite zituela dio Larrek. Ja-



Aireportuan



Larre etxean



Emile etxean, Donibane Garazin

danik bazuen liburu bat idatzia, euskaraz, zeruari buruz.

Emile Larrek Piarres Larzabalekin Hegoaldean gaindi egiten zituen ateraldietan zehar, Itxaropena inprimategiarekin harremanak ukan zituen. Etxeberriri erran zion inprimategi hartan argitaratzen ahal zituela haren lanak. Hortik landa, Etxeberri «goizero-goizero

idazten ari izan zen, mezatik landa». Lehenik kaleratu zuen liburuaz gain, beste hamahiru liburuko bilduma osatu zuen horrela.

Itzaleko langilea izan da Emile Larre. Bere izena ez da lehen planokoa izan inoiz, baina lan gaitza egin du bere bizian, eta euskal kulturaren eta hizkuntzaren aberasten anitz parte hartu du.

BIDOGUILLEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco